

Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) 1973-2002

Udako Euskal Unibertsitateak hogeita hamar urte bete ditu. Horrenbeste urte irauteak dakarkigun aurreneko gogoeta honako hau da: UEUk oraindik ez du lortu hasierako helburua gauzatzea. Helburua, jakina, *Euskal Unibertsitatea* zen; 1973. urtean Ipar Euskal Herrian sortutako erakundea, horretarako sortu zen hain zuzen ere, *Euskal Unibertsitatea* ekartzeko edo posible egiteko.

Aipatu *Euskal Unibertsitatea* modu eta ikuspegi desberdinetan ulertu izan da. UEU sortu zenean Hego Euskal Herriko unibertsitateak, zegoen apurra, Valladolid eta Zaragozako unibertsitate barrutien menpe zeuden; Deustuko Unibertsitatea eta Universidad de Navarra, biak unibertsitate konfesionalak, Euskal Herrian zeuden unibertsitate bakarrak ziren beraz. UEU garai horretan sortu zen, frankismoaren hondarreko urteetan, Euskara Batua abiatu berria zenean, Frantziako 68ko maiatzaren eraginaren uhinean, Burgosko epaiketaren aurkako mobilizazioen ostean, unibertsitateen masifikazio garaian hain zuzen ere. Horrek guztiak badu eduki bere garrantzia UEUren sorrera eta ondorengo garapena ulertzeko.

Lehen: hiru faktore eragile

UEUren sorreran eragin zuten faktoreak hiru alderdi nagusitara laburbil genitzake: egoera soziopolitiko, euskararen estandarizazio prozesua eta unibertsitatearen bilakaera. Beharbada egoera soziopolitiko izan zen gehien eragin zuena UEUren izaeran. UEUren sorburua gizarte edo herri-ekimena izan zen; alde batetik, Ipar Euskal Herriko euskaltzale eta kulturagileak eta, beste aldetik, Hego Euskal Herriko errefuxiatu eta euskaltzaleak. UEU bion arteko eraginez sortu zen. Sorrerako izaera horrek markatu izan du bere garpena eta bilakaera.

Bigarren faktore nagusia euskararen estandarizazio prozesua aipatu dugu. Baionako (1964) eta, batez ere, Arantzazuko (1968) Euskaltzaindiaren bilkurek ezarri zuten Euskara Batuaren abiaburua. Erabaki horiek izan dira ondorengo urteetako euskalgintzaren garapena ulertzeko giltzarriak. Euskararen estandarizazioak berebiziko eragina izan zuen euskalgintza osoan: euskararen berpizkundearen eragile nagusia izan zen. Euskararen aldeko mugimendu sozialak euskarri horien gainean eraiki eta bermatu ziren; ikastolak, AEK, Elhuyar, Euskal Prentsa,... eta tartean UEU. Hogeigarren gizaldiko hirurogeita hamarreko urteak urte oparoak izan ziren. Orduan sortutako erakunde eta mugimendu haiek euskara batua osatzeko eta zabaltzeko benetako eragileak bihurtu ziren. Estandarizazio prozesua izan da, hain zuzen ere, UEUren izanean eta jardueran nabarmenen eragin duen faktorea. Eta halaber, bere apalean esan dezakegu, UEUk estandarizazio prozesuan lagundu duela.

UEUren eraketan eta bilakaeran eragin duen hirugarren faktore gisa Euskal Herriko unibertsitatearen bilakaera aipatu dugu. UEUk hasiera-hasieratik, eraketan, jarduerak antolatzerakoan eta abarretan unibertsitatea izan du iparra eta eredia. Hau da, UEU *Euskal Unibertsitatea* aldarrikapen hutsaetik harago joan izan da, eginarazi baino egitea izan baita UEUren oinarritzko planteamendua. Hasierako Ipar Euskal Herriko udako bilkura haietatik Iruñeko barnetegi motako ikastaroetara igaro zen. Orduz geroztik milaka pertsona pasa da UEUren ikastaroetatik. UEUren ikastaroetan, antolakuntzan edota eskolak ematen, euskalgintza, administrazio eta unibertsitateetako itzal handiko pertsona askok parte hartu izan du. Izan zuen garrantziagatik izen bakarra aipatu nahiko nuke: Karlos Santamaria. Bera izan zen, neurri handi batean, UEUri izana eman ziona, euskaldunok unibertsitatea ere euskaraz behar genuela aldarrikatu zuen aurrenetakoa.



1977ko Udako Ikastaroetako klasea

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) eratu zen eta euskara apurka-apurka hasi zen unibertsitateko ikasgeletara sartzen. Hasierako urrats horietan UEUko kideen lana izan zen, besteak beste, ekarpenik eraginkorrena. Euskal Herriko unibertsitateek jaso dute, hein handian, UEUk sortutako ondarea, irakasleen trebakuntza eta argitaratutako ikasmaterialak batik bat. UEUren urte luzeetako ekarpen horretatik harago UEU bera izan da unibertsitatea eta euskalgintzaren arteko zubia; muga eta unibertsitateen arteko bereizketen gainetik UEU izan da, eta oraindino da, unibertsitazio eta kulturgileen bilgunea.

UPV/EHU eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (UPNA/NUP) hasierako eraketan eta ondorengo garapenak eragin zuten UEUren bilakabidean. Batetik, lehen esan bezala, UEUren lana baliagarria izan zen unibertsitateetan euskararen normalkuntzarako. Baina, bestetik, UEUren izateko arrazoiak eta eginkizunak zalantzan jarri ziren. Orokorrean, bi pentsamolde kontrajarri agertu ziren; unibertsitate publikoek, batez ere

UPV/EHUk, euskarari dagokion lekua emango ziotelarik UEUrenak egina zuela esaten zutenena eta, horren aurrean, UEUren lana ezinbestekotzat jotzen zutenena, euskarak urratsak eman zitzaizkien unibertsitate publikoetan eta, batez ere, *Euskal Unibertsitatea* lortzeko. Udako Euskal Unibertsitateak, bere I. Kongresuan (1995) xede nagusia zehaztu zuen: *Euskal Unibertsitatea sortzen laguntzea*. Garaia iritsi da aztertzeko urte horietan UEUk zer eta zelan *lagundu* duen *Euskal Unibertsitatea sortzen*. UEUren berezko jarduerak, udako ikastaldiak, jardunaldiak, hitzaldiak, ikastaroak, datu-baseak eta argitarapenak, berez bere horretan *Euskal Unibertsitatea* sortzeko nahikoa laguntza da. Hogeita hamar urtetan UEU *de facto* unibertsitateko irakasle-eskola antzekoa izan da; ehunka irakasle trebatu izan dira UEUko ikasgeletan, liburuak eta artikulatuak idazten, ikastaroak eta mintegiak antolatzen,...

Gero: hiru faktore eragile

Unibertsitateak eta teknologia berriak, Europar Batasuneko bilakaera, eta euskararen normalkuntza. Nire ustez horiek dira datozen urteetan Euskal Herriko unibertsitate eta *Euskal Unibertsitatearen* bilakabidean eragingo duten faktore nagusiak.

Orain artean Euskal Herriko politikagintzan unibertsitatea ez da izan gairik garrantzitsua. Alegia, alderdi politikoaren artean ez du kezka handirik sortu. Hala ere, Euskal Herriko gizartearen unibertsitate eta unibertsitatearen eragina gero eta handiago da. Unibertsitateak industria-gizartearen ezinbesteko garrantzia informazio-gizartearen izango du duda izpirik gabe. Oro har, oso gutxi eztabaidatu da Euskal Herriak behar duen unibertsitateaz. Une honetan sei unibertsitate dago Euskal Herrian, haien artean hiru publiko –Paueko eta Bordeleko unibertsitate atalak Ipar Euskal Herrian, NFKko UPNA/NUP eta EAEko UPV/EHU–, katoliko beste bi –Deustua eta Universidad de Navarra– eta pribatu bat: Mondragon Unibertsitatea eta, aurrekoekin batera, Hego Euskal Herrian diharduen Espainiako UNED (Bergara, Irun, Iruñea, Santurtzi,...).

Zenbat unibertsitate behar du Euskal Herriak? Nolako unibertsitatea behar du? Gauzak aldatu dira. Jada ez da entzuten *Euskal Herri osoko unibertsitate publiko bakarra eta euskalduna* aldarrria. Euskal Herriko unibertsitate aniztasuna onartzen da, itxuraz onuragarria da unibertsitate bat baino gehiago izatea. Baina komeni zaigu unibertsitate publiko bana izatea Nafarroan eta EAEn? Eta euskarari dagokionez, unibertsitate publiko bakarra izatea egokiena al da euskararen normalkuntzarako?

Dagoeneko unibertsitate publiko bakarraren eredia gaudituta dagoela uste dut. Duela urte batzuk agertu ziren UPV/EHU zatitzeko proposamenen oihartzunak, hor daude oraindik. Eztabaida oso interesgarria da euskaldunontzat. Euskal Herrian daukagun unibertsitate publikoak gure eraketa politikoaren ispilu dira. Ez dakigu Euskal Herriko gizartearen garapenerako egokienak diren. Baina indarrean dagoen antolaketatik politiko-administratiboari dagokiona da.

Euskal Herria unibertsitate askotariko herria da. Eta, egia esan, ondo dago Euskal Herrian unibertsitate gehiago izatea *elebidunak* edo *elebakarrak*, guztiak zerbait ekarriko baitute herritarren ondarera. Hogeigarren mendean unibertsitate bakarra izatetik sei unibertsitate izatera igaro du Euskal Herriak. Ez dira berdinak baina guztiak daukate erdara (frantsesa edo espainola) berezko hizkuntza, gero bakoitzak baditu eduki bere berezitasunak: konfesionalak batzuk, Autonomi Erkidego jakineko unibertsitate publikoak beste batzuk edo kooperatiben mugimenduari lotutakoa besteak. Publikoak bi besterik ez badira ere, guztiak jasotzen dute administrazio publikoetatik diru laguntza esanguratsua.

Tamalez ez dago aukerarik politika unibertsitario bateratua egiteko. Gauzak horrela, seguru asko unibertsitate bakoitzak bere bide propioa egingo du. Pribatuek euren espezializazio eta izaerari eutsiko diote eta, teknologia berrien bidetik, espainolaren merkatu zabalean bete-betean murgilduko dira. Ipar Euskal Herriaren Baionako campusa zabalduko da baina oso zaila izango da *Euskal Distrita* lortzea. Nafarroako Unibertsitate Publikoak areagotuko du bere lotura Foru Komunitateko administrazioarekiko. Eta Euskal Herriko Unibertsitatearen kasuan, azkenik, EAEko unibertsitate publikoaren izaera indarberrituko da bi norabideetan EAEkoa dela azpimarratzen eta, aldi berean, publikoa.

Europar Batasunak gero eta eragin handiagoa izango du Euskal Herriaren bilakabidean. Estatuak saiaturiko dira euren eskuduntzei ahalik eta osoen eusten. Hori Espainia eta Frantziaren kasuan begien bistakoa da. Hala ere, unibertsitate eta ikerkuntza alderdietan oso zaila izango zaie estatuei euren nahiari eustea. *Ezagueraren gizaratean* goi mailako formazioa eta teknologiaren trukea ekonomiaren ardatz garrantzitsuak bihurtu dira. Datozen urteetan Europa mailako titulazioen estandarizazioa, ikerkuntza eta garapen plan europarrak, teknologia transferentzia eta ikasle/irakasleen mugikortasuna izango dira, besteak beste, unibertsitate guztietan eragingo duten faktoreak. Aldaketak bizi-bizi datoz. Eztabaidatzea aldaketa horiek euskara eta euskaldunontzat onak ala txarrak diren alferrikakoa da, erabat antzua. Badatoz etorri gure esku dago, ahal dela, aldaketak euskara eta euskaldunen alde jartzea edo begira-begira geratu zein kaltegarriak gerta dakizkigukeen.

Azken urteotan euskararen normalkuntzan aurreratutakoak, bidea ematen digu urrats gehiago emateko. Euskararen hizkuntza komunitateak sekula izan ez duen gizaldi jantziak dauzka; euskara batuaren seme-alabak dira, hain zuzen, euskararen etorkizunerako bermerik seguruena. Problema da belaunaldi berri horiek ez daukatela lekurik oraingo unibertsitateetan. Unibertsitateetan dihardugun euskaldun gehienok inoiz baino argiago ikusten dugu euskarak bide mugatua duela unibertsitate publikoetan. Nafarroako unibertsitate publikoan baztertu dute jadanik eta, okerrago dena, legez erabat kanpo utzi nahi dute. UPV/EHUn, berriz, Espainiako unibertsitatean ematen ari diren aldaketek zalantzan jartzen dute orain artean egindakoa.

Jakina denez, UEUK *Euskal Unibertsitatearen* beharra aldarrikatzen du. UEUn bil-tzen garenok euskaldunok unibertsitate propioa behar dugula uste dugu, euskara berezko hizkuntza duen Euskal Herriko unibertsitatea alegia. Unibertsitate askotako Euskal Herriaren euskara berezko hizkuntza duen unibertsitatea behar dugu, unibertsitate bat gutxienik. Belgikan, Quebecen, Suitzan, herri baltikoetan eta gure antzeko hizkuntza egoeran dauden herrietan berezko hizkuntza daukaten unibertsitateak eraikitzea hobetsi dute. Guretzat irtenbide bakarra da. Bakarra eta premiazkoa, euskararen ahuldade soziolinguistikotik ateratzeko eskura ditzakegun baliabide guztiak behar ditugu. *Euskal Unibertsitateak* ez ditu euskara eta euskaldunen problema guztiak konponduko baina seguru gaude *Euskal Unibertsitatea* dagoen artean euskara ez dela desagertuko.

Xabier Isasi Balanzategi